

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

KULTURA ETA KIROL SAILA

Hutsa zuzentzea 2020ko otsailaren 28ko ALHAOn (24. zk.) argitaratutako 547 iragarkian, otsailaren 6ko 33/2020 Foru Aginduari buruzkoan (33/2020 Foru Agindua, onespena ematen diona ALHko eta Trebiñuko Enklabeko toki erakundeek sustatutako historia eta arte ondasunak onik zaintzeko eta/edo zaharberritzeko esku hartzeak bultzatzeko dirulaguntzen deialdi publikoari)

Hutsa atzeman da argitaratutako bederatzigarren klausularen (Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea) laugarren lerroaldean. Beraz, honako hau dioen lekuan:

“Gainerakoa, berriz, egindako gastuak behar bezala zerrendatu eta justifikatu ondoren ordainduko da, dena batera, aurreko paragrafoan aipatutako “aurrerakina” kenduz. Guztirako gastuak justifikatzeko agiriak 2020ko abenduaren 18a baino lehen (egun hori barne) aurkeztu beharko dira. Dirulaguntzen justifikazioa, betiere, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hamargarren klausulan ezarritakoaren konforme egin beharko da; foru dekretu horren bidez, onspena eman zitzaizen Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka bidez esleitzeko oinarri arautzaile orokorrei.”

Hau esan behar du:

“Gainerakoa, berriz, egindako gastuak behar bezala zerrendatu eta justifikatu ondoren ordainduko da, dena batera, aurreko paragrafoan aipatutako “aurrerakina” kenduz. Guztirako gastuak justifikatzeko agiriak 2020ko abenduaren 18a baino lehen (egun hori barne) aurkeztu beharko dira. Dirulaguntzen justifikazioa, betiere, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hamaikagarren klausulan ezarritakoaren konforme egin beharko da; foru dekretu horren bidez, onspena eman zitzaizen Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka bidez esleitzeko oinarri arautzaile orokorrei.”

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 8a

Kultura zuzendaria

MARÍA INMACULADA SÁNCHEZ ARBE